# AKTEA/24

## BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

## (2024-07-09)

| | |
|---|---|
| Batzarraren izaera: | Ohikoa |
| Deialdia | 1. deialdia |
| Data: | 2024-07-09 (Asteartea) |
| Lekua: | Irakaskintza kalea 14-16<br>(Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela) |
| Hasiera-ordua: | 08:04 |
| Amaiera-ordua: | 08:23 |
| Alkate-Presidentea: | NEMEH SHOMALY NADIA |
| Batzordekideak: | ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA<br>URIARTE ANASAGASTI VICTOR<br>ORTUZAR BUTRON XABIER<br>GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE |
| Bertaratu ez direnak: | CARUEZO UGALDE MAITE |
| Idazkaria: | LEJARRAGA URIARTE JURDANA |



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Aztergaiak**

1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-07-02 TGB (23)

2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3.- 21.2 esku-hartze eremuko 13. partzelan 14 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.

4.- 2024ko ekainaren 11ko Tokiko Gobernu Batzarrean 78.887.882-F NAN zenbakidun langileari onartutako guraso baimena bertan behera uzteko eskaria onartzea.

5.- Ofizial lanpostua (biltegizaina) hornitzea.

6.- Kultur taldeen ohiko funtzionamendurako eta ekintzetarako 2024ko deialdiari dagozkion dirulaguntzak onartzea.

7.- Alkatetza dekretuen berri emotea.

8.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

## 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-07-02 TGB (23)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko uztailaren 2ko 23/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

## 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Endika Etxebarriak adierazi du gai zerrendako 6. puntuan interes pertsonala edo familiakoa



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

daukala adierazi du.

## 3.- 21.2 ESKU-HARTZE EREMUKO 13. PARTZELAN 14 ETXEBIZITZA, GARAJE KOLEKTIBO ETA TRASTELEKUAK ERAIKITZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

### Xedea

21.2 areako 13 partzelan 14 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeko obra lizentzi eskariaren ebazpena.

### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2021eko abenduaren 20an 51.378.955-Z NAN zenbakidun F.J.C.C. jaunak B88554167 IFZ. zenbakidun Daphne Activos Inmobiliaros S.L.U enpresaren izenean obra baimena eskatu zuen 21.2 areako 13 partzelan 14 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeko. Horretarako, DGA eta Pedro Apaolaza arquitectura y urbanismo taldeek garatutako proiektu basikoa aurkeztu zuen.

Bigarrena.- Proiektu basikoa dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu zen, hala ere, bertan dago, Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Hirugarrena.- Aurkeztutako proiektuaren arabera, 1.600.974,46 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua.

Laugarrena.- 2022ko matxoaren 16an udalak dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatu zion proiektuaren eragileari, bertan, arkitektoaren txostenean zehazten diren puntuak azaldu eta zuzenduz.

Bosgarrena.- 2022ko abuztuaren 1ean proiektuaren zuzenketak aurkeztu zituen F.J.C.C. jaunak Daphne Activos Inmobiliaros S.L.U enpresaren izenean. 2022ko azaroaren 21ean F.J.C.C. jaunak Daphne Activos Inmobiliaros S.L.U enpresaren izenean 21.2 areako 13 partzelan 14 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeko proiektuaren azken bertsioa aurkeztu zuen.

Seigarrena.- 2024ko otsailaren 27an F.J.C.C. jaunak Daphne Activos Inmobiliaros S.L.U enpresaren izenean 21.2 areako 13 partzelan 14 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeko proiektuaren eranskina aurkeztu zuen.



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Zazpigarrena.- 2024ko uztailaren 4an Bermeoko udal arkitektoak txostena egin zuen.

Zortzigarrena.- 2024ko uztailaren 5ean Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Bederatzigarrena.- 2024ko uztailaren 5an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena egin eta ebazteko organo eskudunari igorri zion.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, 51.378.955-Z NAN zenbakidun F.J.C.C. jaunak B88554167 IFZ. zenbakidun Daphne Activos Inmobiliaros S.L.U enpresaren izenean eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazio indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena.- Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikula kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 51.378.955-Z NAN zenbakidun F.J.C.C. jaunak B88554167 IFZ zenbakidun Daphne Activos Inmobiliaros S.L.U enpresaren izenean obra baimena ematea 21.2 areako 13 partzelan 14 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeko 2022ko azaroaren 21ean aurkeztutako proiektu basikoa eta 2024ko otsailaren 27an aurkeztutako eranskinaren arabera.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:

- Aparkaleku egokituari lotutako trastelekuaren atea aniztasun funtzionala duten pertsonentzat egokituta izango da.

- T01 trastelekuaren atea lekuz mugituko da eta fatxadatik ahalik eta gertuen jarri, erreserba-



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

espazioaren ordez hondakin-biltegia egin behar bada, biltegiak beharrezko neurriak izan ditzan. Neurri horiek justifikatuko dira.

- Bermeoko HAPOaren 4.1.18 artikuluan zehazten den bezala, esekilekuak gutxienez, 3 $m^2$ izango ditu.

- Kanpoko sarbide-ateei dagokienez, ezkaratzeko ateak 1,50 metroko espazio libre horizontala du atearen bi aldeetan. Espazio hori ezin dute atearen orriek hartu (68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazi sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, III. Eranskineko 4.1.1 artikuluaren 1. paragrafoa).

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispenhondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango. Izan ere, eraikuntza- eta eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza 10.043, 03 €-koa izango da.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.

- Urbanizazioan sor daitezkeen kalteak direla eta, lanak hasi aurretik 31.401,15 €-ko bermea jarri beharko da (gauzatze materialaren aurrekontuaren %2). Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.

- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie udal zerbitzu teknikoei.

- Lanak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onetsitako exekuzio proiektua aurkeztu beharko da Bermeoko Udalean.

- Obra baimena 2022ko azaroaren 21ean aurkeztutako proiektu basikoan eta 2024ko otsailaren 27an aurkeztutako eranskinean oinarritzen da.

Proiektuaren aldaketarik balego, udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.

- Etxebizitza eraikin berriak definitzen dituen proiektuak Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko eraikuntza ordenantzen xedapenak errespetatu beharko ditu.

- Etxebizitza eraikin berriak definitzen dituen proiektuak eta garaje jarduerari dagokion dokumentazioak AI.21.2 areako 7, 10, 13, 14, 15, 16 eta 17 partzelak xehatuki antolatzen dituen Plan Berezia errespetatu beharko dute.

- Eraikinaren solairu bakoitzaren kota Plan Bereziak ezarritako kotara egokitu beharko da.

- Plan Bereziak ezarritako lerrokadurak errespetatu beharko dira.

- Eraikigarritasuna ezin izango da gainditu, gehienezko eraikigarritasuna 2.005,11 $m^2$-koa izango da.

- Bermeoko HAPOak bere 3.2.5 artikuluan zehazten du etxebizitzek gutxienez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren 2009ko otsailaren 12ko agindua bete beharko dutela, Babes Ofizialeko Etxebizitzen diseinurako ordenantzak onartzen dituena.

- Bermeoko HAPOaren ordenantzetako 4.1.9 artikulura egokituko da, fatxada bakoitzean hegalkinek ezin izango dute fatxadaren luzeraren %60 baino gehiago okupatu eta fatxadaren garapenean hegalkinen itxitura kristalezkoa izango da gutxienez fatxadaren %60an.

- Eraikuntza lanetan aldamua, edota garabia jartzea beharrezkoa balitz, aurretik udalari baimena eskatuko zaio, dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

- EKTari dagokionez, martxoaren 17ko 314/2006 dekretua bete beharko da.

- Irisgarritasunari dagokionez, EKTk eta 68/2000 Dekretuak jasotzen dutena bete beharko da.

- Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Baldintza honetaz gain, obra egiteko lizentzia eraginkorra izateko, lizentzia honeri erantsita doazen baldintza orokorrak bete beharko dira.

Ohartarazten da baimen hau ez dela eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diren bitartean.

HIRUGARRENA: Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira Udalean:

• Instalazioei eta egindako lanei dagoken obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiarekiko egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.

• 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo,azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispenmaterialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

• Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkaritzak abalatuta.

- Eraikinaren alta aitorpena hiri ondasunak zergapetzeko.

- Obra berriaren aitorpena.

- Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne.

- ITC proiektua industria ordezkaritzan aurkeztu izanaren ziurtagiria.

- Igogailuen mantenu kontratua.

- Igogailuak abiaraztearen ziurtagiria

- Aireztapen sistema abiaraztearen ziurtagiria.

- Kalitate kontrolaren dokumentazioa.

- Udal kartografia eguneratzeko planoa digitalki aurkeztua

LAUGARRENA: Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

BOSGARRENA: Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenetarako eta egiaztapenetarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA: Obraren aurrekontua 1.600.974,46€koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Ohartarazten da ebazpen honetan adierazten diren fidantzak gordailatu aurretik ezin izango dela obrekin hasi. Era berean, obrak egiteko epea hogei hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko duela,



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1 | Sinadurea eta datea | DOCUMENTO: 20241066820 |
| --- | --- | --- |
| | JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42 | Datea: 09/07/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |

interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.

ZAZPIGARRENA: Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsonei kalterik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA: Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

BEDERATZIGARRENA: Obretako hesi, aldamio eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

HAMARGARRENA: Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun esklusibopean.

HAMAIKAGARRENA: Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA: Errenta Sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

## 4.- 2024KO EKAINAREN 11KO TOKIKO GOBERNU BATZARREAN 78.887.882-F NAN ZENBAKIDUN LANGILEARI ONARTUTAKO GURASO BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEKO ESKARIA ONARTZEA.

### Xedea

2024ko ekainaren 11n izandako Tokiko Gobernu Batzarrean 78.887.882-F NAN zenbakidun langileari onartutako guraso baimena bertan behera uzteko egindako eskaera.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko ekainaren 11n izandako batzarrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki zuen:



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

“Ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege-dekretuaren 127. artikuluan ezarritakoaren arabera Gizarte langilea den 78.887.822-F NAN zenbakidunak eskatutako guraso-baimena onartzea, 2024ko abuztuaren 5etik irailaren 6rarte biak barne.”

Bigarrena: 2024ko ekainaren 13ko 202409057 zenbakidun sarrera erregistro bidez, 78.887.882-F NAN zenbakidun langileak honako hau eskatu du:

“2024-05-21ean baimen bat eskatu neban semeak zaintzeko abuztuaren 5etik irailaren 6ra arte. Nahiz eta nire eskaria onartuta egon, bertan behera uztea nahi dut.”

## Argudioak

Lehenengoa: Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 94. artikuluak honako hau xedatzen du:

**“Artículo 94. Desistimiento y renuncia por los interesados.**

1. Todo interesado podrá desistir de su solicitud o, cuando ello no esté prohibido por el ordenamiento jurídico, renunciar a sus derechos.

2. Si el escrito de iniciación se hubiera formulado por dos o más interesados, el desistimiento o la renuncia sólo afectará a aquellos que la hubiesen formulado.

3. Tanto el desistimiento como la renuncia podrán hacerse por cualquier medio que permita su constancia, siempre que incorpore las firmas que correspondan de acuerdo con lo previsto en la normativa aplicable.

4. La Administración aceptará de plano el desistimiento o la renuncia, y declarará concluso el procedimiento salvo que, habiéndose personado en el mismo terceros interesados, instasen éstos su continuación en el plazo de diez días desde que fueron notificados del desistimiento o renuncia.

5. Si la cuestión suscitada por la incoación del procedimiento entrañase interés general o fuera conveniente sustanciarla para su definición y esclarecimiento, la Administración podrá limitar los efectos del desistimiento o la renuncia al interesado y seguirá el procedimiento.”

Ondorioz, interesdunak atzera egin dezake bere eskaeran, eta Administrazioak erabat onartuko du atzera egitea.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA: Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 94. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2024ko ekainaren 11n izandako Tokiko



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Gobernu Batzarrean 78.887.882-F NAN zenbakidun langileari onartutako guraso baimena bertan behera uztea onartzea.

## 5.- OFIZIAL LANPOSTUA (BILTEGIZAINA) HORNITZEA.

### Xedea

Ofizial lanpostua hornitzen duen 14.941.872-Z NAN zenbakidun karrerako funtzionarioa den J. L.L. jaunaren erretiroa dela-eta, biltegizain lanpostua hornitzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko urtarrilaren 22an, biltegizain lanpostua hornitzen duen 14.941.872-Z NAN zenbakidun karrerako funtzionarioa den J.L.L. jaunak, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 205. artikuluan ezarritako baldintzak betez, datorren 2024ko uztailaren 21ean erretiroa hartuko duela jakinarazi digu.

Bigarrena: Biltegiko zereginak betetzea ezinbestekoa da zerbitzuetako funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko biltegiko materialen kontrola (sarrera, irteerak, kontsumoak, etab.), segurtasun prozedura guztiak biltegian ezarri eta biltegiaren mantentze, garbitze eta atontze lanak modu egokian izatea nahitaezkoa baita.

Hirugarrena: 2024ko urtarrilaren 15eko 626 zenbakidun sarrera erregistro bidez, 30.656.091-N NAN zenbakidun karrerako funtzionarioa den JAGB jaunak, honako hau eskatu du:

> "Aurten, biltegiko arduraduna jubilatu egiten da. Alde batetik, lanpostu hori betetzeko prest nagoela adierazi nahi dut.
>
> Bestetik, urteetan nire igeltsero lanak murrizketa fisikoarekin egiten egon naizenez, nire gorputzaren osasunerako aukera aproposa dela ikusten dut.
>
> Prevenorren mediku txostena atxikitzen dizuet, bertan agertzen dira nik ditudan murrizketa fisiko guztiak.
>
> Horregatik, biltegi arduradun lanposturako neure burua aurkezten dut."

Laugarrena: 2024ko apirilaren 16ko 5281 zenbakidun sarrera erregistro bidez, 30.644.446-M



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

NAN zenbakidun bitarteko funtzionarioa den JKAL jaunak honako hau eskatu du:

"Nire lanpostua kale garbiketan dago orain, baina aurreikusita almazeneko arduradunaren lanpostua libre geratuko dala denbora gutxi barru jubilazinoagatik, eskatzen dot ni kontutan eukitzea lanpostu hori betetzeko."

Bosgarrena: Izandako eskaerez gain, beste langile batzuk ere interesa agertu dute betegabe geratuko den biltegizain lanpostua hornitzeko.

Seigarrena: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean eta Estatuko Administrazio Orokorraren Zerbitzura dagoen langileria sartzea, eta Estatuko Administrazio Orokorraren Funtzionario zibilen Lanpostuek hornitu eta horien Lanbidea sustatzeko, martxoaren 10eko 1995/364 Dekretuaren 66. bis artikuluak xedatutakoen arabera, funtzionarioak osasun-arrazoietan oinarritutako lanpostu aldatzeko eskaera egin ondoren, funtzionarioa beste lanpostu batzuetara adskribatu izango da, beti ere, aipatutako legedian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kasu zehatz honetan, eta proposamena egin aurretik, bere lanpostuetan aritzeko murrizketak dituzten langileei buruzko informazioa eman du laneko prebentzio zerbitzuko teknikariak, eta osasun zaintzako zerbitzuak diktaminatutako gaitasun txostenean oinarrituta funtzionario bi daudela adierazi du. Funtzionario bi horietako batek ez du betetzen 11/2022 Legean eta 1995/364 Dekretuan ezarritako baldintzak, eta ondorioz, hautagai bakarra dago osasunagatiko mugigarritasunaren prozedura bidez beste ofizial lanpostura adskribatzeko.

## Argudioak

Lehenengoa: Estatuko Administrazio Orokorraren Zerbitzura dagoen langileria sartzea, eta Estatuko Administrazio Orokorraren Funtzionario zibilen Lanpostuek hornitu eta horien Lanbidea sustatzeko, martxoaren 10eko 1995/364 Dekretuaren 7. artikuluak xedatzen du:

"**Artículo 7.** *Objeto.*

Las necesidades de recursos humanos que no puedan ser cubiertas con los efectivos de personal existentes serán objeto de oferta de empleo público, siempre que exista crédito presupuestario y se considere conveniente su cobertura durante el ejercicio."

Era berean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikuluak ezartzen du:



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010474400D4T9M7E0O8J1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/07/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/07/2024 23:42:42

DOCUMENTO: 20241066820
Datea: 09/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

“**52. artikulua.– Enplegu publikoaren eskaintza.**

1.– Aurrekontu-esleipena duten postuak betetzeko langileak behar direnean, postuok ezin direlako bete administrazio bakoitzean dauden giza baliabideekin, enplegu publikoaren eskaintza egin beharko dute euskal administrazio publikoek eta haien mendeko entitateek, edo antzeko beste edozein kudeaketa-tresna erabili, langileen ordezkaritzarekin negoziatu ondoren.”

Beraz, enplegu publikoaren eskaintza egingo da lanpostu betegabeak udalaren barne baliabideekin ezin badira bete.

Bigarrena: 364/1995 Errege Dekretuaren 36. artikuluak funtzionarioei atxikitako lanpostuak hornitzeko moduak arautzen ditu, lehiaketa edo izendapen aske bidez, lehiaketa-prozedura ezarriz sistema arrunta bezala, beti ere lanpostuen zerrendak zehazten duenaren arabera. Bermeoko Udaleko lanpostuen zerrendaren arabera, lanpostuak lehiaketa bidez hornituko dira, aipatutako Errege Dekretuan ezarritako prozedura jarraituz.

Halaber, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen I kapituluak funtzionarioen lanpostuak hornitzeko modalitateak arautzen ditu, eta 94. artikuluan ezartzen da:

“**94. artikulua.– Euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak hornitzea.**

1.– Titulu honetan ezarritako prozeduren bidez hornituko dituzte beren lanpostuak euskal administrazio publikoek, printzipio hauek errespetatuta: berdintasuna, merezimendua, gaitasuna, publikotasuna eta gardentasuna.

2.– Honako sistema hauek baliatuko dira euskal administrazio publikoetako lanpostuen behin betiko hornikuntzarako:

a) Lehiaketa.

b) Izendapen askea.

3.– Hauek hartuko dira, berriz, lanpostuak aldi baterako hornitzeko prozeduratzat:

a) Behin-behineko adskripzioa.

b) Zerbitzu-eginkizuna, lege honek arautzen dizkion modalitateetan.

c) Osasun-arrazoiengatiko mugigarritasuna eta ustezko lan- eta sexu-jazarpenaren ondoriozko mugigarritasuna.



CSV: 07E80010474400D4T9M7E0O8J1

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

